


Xanistebanak 2026



OIARTZUN
abuztuaren 2tik 6ra



Joana Mendiburu Garaiar
Oiartzungo alkatea

Xanistebanak ate joka ditugu berriro. Urte osoa esperoan pasatzen dugun egun horiek iritsi dira: kaleak kolorez betetzekoak, plazak bizitzaz janztekoak, herria ospakizunaren bueltan elkartzekoak, festari ilusioz eta gogoz erantzutekoak.

Oraingoan ere, herritar askoren lanari eta konpromisoari esker, egitarau zabala eta anitza izango dugu. Jai batzordeko kideek, elkarteek, boluntarioek eta herritar ugari egindako lanari esker, adin eta gustu guztietarako aukerak izango ditugu: musikarekin dibertitzeko, dantzatzeko, kirolaz gozatzeko, kulturaz elikatzeko eta, batez ere, elkarrekin egoteko.

Aurten, belaunaldiz belaunaldi transmititu dugun ondarea, euskaldun egiten gaituena, ekarriko dugu plazara: euskara. Etxeetan, kaleetan, ikastetxeetan, lantokietan eta herriko plaza honetan bertan transmititu den hizkuntza. Horregatik, Xanistebanen hasieran, isilean nahiz agerian euskararen alde lanean aritu

diren hainbat herritar aterako ditugu dantzara. Haien bidez, hizkuntza batek ez duela berez bizirik irauten gogorarazi nahi dugu; herritarrek ematen diogula arnasa, eguneroko erabileraren bidez. Eta duela hamarkada batzuk euskara biziberritzeko bultzada handia sortu zen bezala, orain ere, erronka berriei elkarrekin erantzun behar diegu Oiartzunek herri euskalduna izaten jarrai dezan nahi badugu.

Jaiak ospakizuna dira, baita herri baten izaeraren ispilu ere. Xanistebanetan argi ikusten da zer garen: elkartasuna, auzolana, parte-hartzea eta herri harrotasuna oinarri dituen komunitatea. Entzuten eta erantzuten duen komunitatea. Egun hauetan, urtean zehar agian gurutzatzen ez diren bideak berriz elkartuko dira, aspaldiko lagunak besarkatuko ditugu, familia eta kuadrillak mahaiairen inguruan bilduko dira, eta herriko txokoak bizipen berrien lekuko bihurtuko dira. Gozatu memento denez, goxatu elkar.

Gure artean ez daudenak ere izango ditugu gogoan. Herriaren historia eta memoria osatzen duten pertsona guztiak maitasunez gogoratuko ditugu, haiek ere gaurko Oiartzunen parte direlako.

Jaiak askatasunez eta alaitasunez bizitzekoak dira, baina baita errespetuz ere. Horregatik, aurten ere lanean jarraituko dugu eraso sexistarik gabeko eta diskriminaziorik gabeko jaiak izan daitezen. Denok dugu fin erantzuteko ardura eta aukera: giro seguru, atsegin eta parekidea eraikitzen lagundu dezagun.

Egun gutxi barru jaien hasierako suziria entzungo dugu. Une horretatik aurrera, plazak, kaleak eta auzoak biziz beteko dira. Goza ditzagun Xanistebanak gure herriak merezi duen bezala: alaitasunez, errespetuz eta elkarrekin.

**ONDO PASA XANISTEBANAK!
GORA OIARTZUN!**

Xanistebanak

2026

Oiartzungo Udalak, herriko elkarten laguntzaz eta herritar guztien gozamenerako, abuztuaren 2, 3, 4, 5 eta 6rako eratu duen JAI ETA KULTUR EKINTZEN EGITARAUA

ABUZTUAK 2 igandea

Arratsaldean zehar

Auzoz auzoko 45. ibilaldia: OIARTZUNGO MUSIKARIZ osatutako taldea ibiliko da auzoz auzo, Xanistebanak hastera doazela iragarritz.

Antolatzailea: Oidultz Dultzaina Taldea

17:30

AGERRALDI FEMINISTA, herriko plazan

Antolatzailea: Oiartz ungo Feministen Asanblada

18:30

Udalbatzako kideek SOKADANTZA dantzatuko dute, Herriko Plazan, Haurtzaro Dantza Taldearen, Olarri Dantza Taldearen eta Lartaun Txistulari Taldearen laguntzaz.

Ondoren

Jai Batzordeak proposatuta, 27 urteko ibilbidea egin duen herri-proiektu eredugarriari egindako lana aitortuz, **URMENDI UDAL IKASTOLA PARTZUERGOKO ORDEZKARIEK SUZIRIA** botako dute.

Kanpai-soinu alaitsuekin batera, jaiak hasiko dira.

Antolatzaileak: Kanpai joleak

Jarraian

OIARTZUNGO ERRALDOIEN ETA BURUHANDIEN baltsa eta kalebuelta, herrian zehar, gaiteroen eta Lartaun Txistulari Taldearen laguntzaz.

Antolatzaileak: Amilka Erraldoien Konpartsa eta Lartaun Txistulari taldea

19:30

BIZKOR TXARANGAK Plaza inguruko bazterrak eta txosnaguneak animatuko ditu.

Antolatzaileak: Musika Batzordea

23:30

Musika Jaialdia, Txosnagunean.

BELE

BURUTIK

Antolatzaileak: Musika Batzordea

24:00

Musika Jaialdia, Done Eztebe plazan:


ITZAL ERROMERIA TALDEA

Antolatzaileak: Musika Batzordea

24:00

DJ JOTATXO, Zimitiyoko Txosnan

Antolatzailea: Zimitiyoko txosna



ABUZTUAK 3 astelehena

XANISTEBAN EGUNA


- 07:00** SOKAMUTURRA, Ormazabal parkinaren ondoko belazean.
Antolatzailea: Auzokalte Elkartea
- 07:00** GOSARI TXOW, txosnagunean ( Kontzejupean).
Antolatzailea: AIA
- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea.
- 10:30** Festetako kanpai joaldia.
Antolatzaileak: Oizartzungo kanpai joleak
- 11:00** LARTAUN ABESBATZA kantuan eta BEGOÑA BERGARETXE harmoniumean,
Meza Nagusia Done Eztebe Parrokian.
- Ondoren** 49. KONTZERTU HERRIKOIA, Kontzejupean, Euskal doinu, kanta eta dantzetan
oinarritutako emanaldia.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 11:30** UR PUZGARRIAK, Landetxe plazan.
Antolatzailea: AIA
- 16:00** Madalensoro pilotalekuan, Oizartzungo Auzoen Arteko 38. SOKATIRA
TXAPELKETA.
Antolatzailea: Artaso Elkartea
- 17:00** IPUIN KONTAKETA 3 urtetik gorako haurrentzat. Ondoren, askari osasungarria
Arizmendienean ( udaletxeko aretoan).
Antolatzailea: Elizaldeko Guraso Elkartea
- 19:30** DANTZA BILERA Lartaun Txistulari taldearen eskutik, Landetxe Plazan
( Kontzejupean).
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 23:00** Musika Jaialdia, Done Eztebe plazan:
BIDE BATEZ
Antolatzaileak: Musika Batzordea
- 23:00** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
SÜNE
Antolatzaileak: Musika Batzordea

Xanistebanak 2026

ABUZTUAK 4 asteartea

BASERRITAR EGUNA

- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 10:00** HemenGuk, Oiartzungo PRODUKTUEN AZOKA, Kontzejupean.
Bertako eta sasoiko produktuen azoka.
Antolatzaileak: Hemenguk
- 10:30** IDI DEMAren lehenengo txanda, hilerriaren goiko aldeko plazan. Oiartzungo harria erabiliko da (1.800 kg-koa). 1.100 kg-tik gorako pisua duen idi pare bakoitzak 1,5 kg-ko gain-zama hartu beharko du gainditzen duen kilo bakoitzeko. Federatuak izango dira.
Antolatzailea: Oiartzungo Idiyazaleak Elkartea
- 11:00** ZAHARREN EGOITZARA BISITALDIA, Haurtzaro Ikastolako trikitilari, pandero-jotzaile eta Dantza Taldearekin, Lartaun Txistulari Taldearen laguntzarekin.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 11:00** Oiartzungo HERRI MUSIKA ESKOLAKO musikarien kale-buelta, Done Eztebe Plazatik abiatuta.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 11:30** ERRALDOIEN eta BURUHANDIEN TOPAKETA, Oiartzungo Erraldioen, Igantziko Kankailuen eta Lezoko Erraldioen kale-buelta, Doneztebe plazatik abiatuta.
Antolatzailea: Amilka Erraldioen Konpartsa
- 11:50** Inaxio Uharte 25. SAGARDO LEHIAKETAREN hasiera, Done Eztebe plazan.
Herriko sagardoa dasta eta balora ezazu edalontzia erosiz!
Antolatzailea: Ibargain Elkartea
- 12:00** LIBREKO BERTSO SAIOA Joanes Illarregi eta Nerea Elustondo bertsolariekin, Doneztebe Plazan.
Antolatzailea: Martzelina Bertsozale Elkartea
- 13:30** Inaxio Uharte 25. SAGARDO LEHIAKETAREN sari banaketa, Done Eztebe plazan.
- 14:00** Oiartzungo Udalak BAZKARI GOXO BAT ESKAINIKO DIE HERRIKO ERRETIRATUEI, Gazte Izanak elkartearen laguntzarekin. Ondoren, musika izango da, nahi duenak dantza egin dezan.
- 14:30** BAZKARI FEMINISTA, Eliza ondoan.
Antolatzailea: Oiartzungo Feministen Asanblada



15:30 Oiartzungo HAURREN PALA TXAPELKETA HERRIKOI Aren finalak, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiartzungo Eskola Kirola eta Txost.

16:00 Nerabeen I TRUK TXAPELKETA (2008-2013 bitartean jaiotako gazteentzat),
Landetxe Plazan ( Topalekuan).
Antolatzailea: Oiartzungo Topalekua

16:00 EUSKAL PILOTA EGOKITUko erakustaldia, Kontzejupean.
Antolatzailea: Mindara Elkartea

Ondoren Binakako PALA TXAPELKETAren finalak, Kontzejupean. 17:00 neska gazteak;
17:30 gazteak; 18:00 herrikoia; 18:40 irekia eta 19:30 neskak.
Antolatzaileak: Girizia Pilota Saila eta Txost.

17:00 Haurrentzat ESKULAN TAILERRAK Arizmendienean ( udaletxeko aretoan).
Antolatzailea: Elizaldeko Guraso Elkartea

17:00 HELDUEN TAILERREN 27. ERAKUSKETA (margoak, bolilloak, eskulanak, tailla,
joste-lanak, pachwork, altzari-berritzea, eta abar), Done Eztebe Plazan.
Antolatzailea: HELTA Helduen Tailerrak

17:00 BINGO MUSIKATUA, Eliza ondoan.
Antolatzailea: Oiartzungo Feministen Asanblada

17:30 IDI DEMAren bigarren txanda, hilerriaren goiko aldeko plazan.

18:30 Oiartzungo dantza taldeen emanaldia, Landetxe Plazan.
Antolatzaileak: Elizalde, Haurtzaro eta Olarri Dantza Taldeak

19:00 BOLOMA. ZUNBA KUIRRA txosnagunean.
Antolatzailea: Oiartzungo Feministen Asanblada

19:00 HERRI KIROL EN JAIALDIA, Haurtzaro Ikastolan.
Aizkolariak eta harri-jasotzaileak.
Antolatzailea: Iturri-Berri Elkartea

19:00 Herriko gazteen BERTSO SAIOA, Haurtzaro Ikastolan. Kattalin Arabolaza,
Egiar Otegi eta Peru Alijostes bertsolariak.
Antolatzailea: Martzelina Bertsozale Elkartea

21:00 GOI-MAILAKO PILOTA PARTIDAK, Madalensoro Pilotalekuan.
Eskuz binaka neskak eta mutilak.
Antolatzaileak: Oiarpe K. E.

22:00 HIKA TEATROA eta OINKARI dantza taldearen MAKIL HOTSAK ikuskizuna,
Elorsoro kiroldegian.
Antolatzailea: Haurtzaro Dantza Taldea

22:00 Musika Jaialdia, Done Eztebe plazan:
6ETZI
Antolatzaileak: Musika Batzordea


Xanistebanak 2026

- 23:00** Musika Jaialdia, Txosnagunean.
ASTELEHEN GOIZAK
LORAZE
Antolatzaileak: Musika Batzordea
- 23:00** HELDUEN DANBORRADA, Oiartzungo kaleetan zehar.
Antolatzaileak: Auzokalte Elkartea eta Haurtzaro Ikastola
- 24:00** DJ BULL, Zimitiyoko txosnan, euskal musikaz girotua.
Antolatzailea: Zimitiyoko txosna

ABUZTUAK 5 asteazkena

GAZTEEN EGUNA

- 09:00** GOIZ ERESIA.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea.
- 11:00** Oiartzungo HERRI MUSIKA ESKOLAKO musikarien kale-buelta,
Done Eztebe Plazatik abiatuta.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 11:45** BERTSO JAIALDIA, txosnagunean. Julio Soto, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga eta
Alaia Martin bertsolariekin ( udaletxeko aretoan).
Antolatzailea: Martzelina Bertsozale Elkartea
- 12:00** TOKA JOKOA, Landetxeko atarian, 18 urtetik gorako oiartzuarrentzat.
Izen ematea egun berean, Gazte Izanak-en lokalean, 11:30etik 12:00ak arte.
Antolatzailea: Gazte Izanak Elkartea
- 12:30** KANTU KANTARI. Kantuzale den orok herri-kantuen sorta ederra abesteko
aukera izango du herriko kaleetan barrena. Denak gonbidatuta!
Antolatzailea: Lartaun Abesbatza.
- 13:00** GAZTE TXUPINAZOA, Txosnagunean.
Antolatzaileak: Biyurrienea
- 13:30** GAZTEEN BAZKARIA, Done Eztebe plazan.
Antolatzaileak: Biyurrienea
- 16:00** Haur mailako banakako 26. XAKE TOPAKETA, Madalensoro pilotalekuan.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola.
- 17:00** TXOKO JOLASAK, Arizmendienean hasita.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola

- 
- 17:00** JOKOAK, Landetxeko atarian, 18 urtetik gorako oiartzuarrentzat.
Antolatzailea: Gazte Izanak Elkartea
- 18:00** 34. ARIN-ARIN ETA FANDANGO TXAPELKETA, gaztetxoentzat, Landetxe Kultur Aretoan. Gipuzkoa osoko dantzariak, 16 urtetik beherako neska-mutilak, Lartaun Txistulari Taldearen doinuekin dantzan.
Antolatzailea: Aldeguna Elkartea.
- 18:00:** ELEKTROTXUFLAK gidatutako POTEOA tabernaz taberna.
Antolatzaileak: Biyurrienea
- Jarraian** Gazte eguneko jolasak, Txosnagunean.
Antolatzaileak: Biyurrienea
- 19:30** DANTZA BILERA, BELTRAN LAUKOTEA eta LORENA ZALAKAIN DANTZA-GIDARIA, Landetxe Plazan (☁️🌧️ Kontzejupean).
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 21:30** DISKOBERRI festa, Landetxeko aretoan, gaztetxoentzat.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 22:30** Dantzaldia, Done Eztebe Plazan.
PATXI PEREZ
Antolatzaileak: Musika Batzordea
- 23:00** FIFI eta FEFA, Txosnagunean
Antolatzaileak: Musika Batzordea

ABUZTUAK 6 osteguna

HAURREN EGUNA

- 09:00** GOIZ ERESIA. Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea
- 10:00** Xanistebanetako ESKU-PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, binaka, Kontzejupean. Antolatzailea: Oiarpe KE

BARRAKAK

Barraketan **prezio bereziak** izango dira Oiartzunen Xanistebanetan:

Bidaia bat: 2 euro · 6 bidaia: 9 euro

Egunero 17:00etatik 18:00etara bitartean, ez da izango musikarik ez soinu karrankaririk, barrakak ahalik eta inklusiboenak izan daitezen.

Xanistebanak

- 11:00** Oiartzungo ERRALDOIEN eta BURUHANDIEN kale-buelta, Doneztebe plazatik abiatuta, gaiteroen laguntzaz.
Antolatzailea: Amilka Erraldoien Konpartsa
- 11:00** Oiartzungo HERRI MUSIKA ESKOLAKO musikarien kale-buelta, Done Eztebe Plazatik abiatuta.
Antolatzailea: Soinuenea Fundazioa
- 13:00** ELIZALDEKO DANTZA TALDEAREN EMANALDIA, Landetxe Plazan ( **udaletxeko aretoan**).
Antolatzailea: Elizaldeko Guraso Elkarteak.
- 12:30** ARKUME ERRETZEA: *ARKUMEA BURDUNTZIAN, A ZE POZA TRIPAN SARTZIAN*.
Done Eztebe plazan, herri-poteoaren hasiera.
- 13:00** Nerabeen BAZKARI AUTOGESTIONATUA eta MUXKER eta ENAREren kantaldia (2008-2013 bitartean jaiotako gazteentzat), Landetxe Plazan ( **Topalekuan**).
Antolatzailea: Oiartzungo Topalekua
- 14:30** ARKUME JATEA. Bazkalondoa, TXARANGAK alaituta.
Antolatzailea: Ardi Latxa elkarteak
- 16:00-20:00** HAUR ETA GAZTEENTZAKO PARKEA, Haurtzaro Ikastolan.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 16:30** Xanistebanetako 29. TRUK TXAPELKETA, Madalensoro pilotalekuan.
Antolatzailea: Oiarpe KE
- 18:30** Haurrentzako TXOKOLATADA, Haurtzaro Ikastolan.
Antolatzailea: Haurtzaro Ikastola
- 23:00** Elizaldeko kaleetan zehar, ZESENSUZKOA ibiliko da, Lartaun Txistulari Taldeak Idiarena doinuz lagundurik.
- Ondoren** Musika Jaialdia, Done Eztebe plazan:
PURO RELAJO
Antolatzaileak: Musika Batzordea
- 23:00** DJ ENABIL, Txosnagunean
Antolatzaileak: Musika Batzordea

OHARRAK

Oiartzungo Udalak ez ditu bere gain hartuko jai hauetan gerta daitezkeen zorigaitzak. Halaber, egitarau honetan adierazten diren festa edo ekintzetan iruditzen zaizkion aldaketak egiteko ahalmena du.

Xanisteban festetako aurrekontua ikusgai egongo da helbide honetan,
oiartzun.eus/eu/Festak/Xanistebanak, Xanistebanetako aurrekontua estekan.

KIROL EKITALDIAK

UZTAILAK 26, IGANDEA

10:00 78. XANISTEBAN TXIRRINDULARI SARIA, Txomin Perurenaren oroimenezkoa. Irteera eta helmuga, Done Eztebe Plazan.
Antolatzailea: OTXE Oarsoaldeako Txirrindulari Kirol Kluba

UZTAILAK 31, OSTIRALA

10:00 Xanistebanetako HAURREN ESKU-PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, banaka, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiarpe KE

ABUZTUAK 1, LARUNBATA

18:30 Oiartzungo JOKO GARBI Txapelketa Herrikoiaaren finala.

Ondoren 15. ESKUZKO PASAKA Txapelketa Herrikoiaaren finala.
Antolatzailea: Txost pilota elkarte

19:00 AITOR TXIKI 17. ARETO FUTBOLEKO Txapelketaren finalak, Elorsoro kiroldegian.
Antolatzailea: Oiartzun Kirol Elkartea.

ABUZTUAK 2, IGANDEA

08:00 Xanistebanetako 54. Ehiza Txakur lehiaketa
Antolatzailea: Bizardia Elkartea

KULTUR EKITALDIAK

UZTAILAK 31, OSTIRALA

19:30 HIESaren aurkako Harri Beltza elkartearen eskutik, Udako 30. Kontzertua: AINARA ORTEGA, Lurdes Iriondoren omenez, Done Eztebe elizan.

ABUZTUAK 1, LARUNBATA

18:00 Landetxe Kultur Aretoan, Xanistebanetan ohitura den bezala, ***Oiartzun 2026*** urtekariaren aurkezpenari ekingo dio Udaleko Kultura Batzordeak.

Jarraian Joxemari Iturrioz Oñatibiak Mugarri bildumarako idatzi duen liburua aurkeztuko da: ***Oiartzungo burdinolak, Olagizonen auzia eta Olaberria udal burdinola.***

Jarraian Xanistebanak 2026 kartel lehiaketako irabazleen sariak banatuko dira.

Bukatzeko herrian nabarmendu direnei omenaldia egingo die Udalak.

23:30 Musika Jaialdia, Txosnagunean.
NAXKER
DJ AIAKATE
Antolatzaileak: Txosna Batzordea

24:00 DJ INFERNU, Zimitiyoko Txosnan
Antolatzailea: Zimitiyoko txosna

ERAKUSKETAK

XANISTEBANEK IRAUTEN DUTEN BITARTEAN

MANUEL LEKUONA BIBLIOTEKAN 09:00 - 14:00

abuztuaren 2tik 6ra (Sarrera: ikasle gelatik).

Xanistebanak 2026 Kartel Lehiaketan parte hartu duten kartelen erakusketa

ARIZMENDIENEAN 09:30-14:30 eta 15:30-18:30

abuztuaren 1etik 31a arte

Helduen Tailerreko margolanekin erakusketa.

Antolatzaileak: HELTA Helduen Tailerrak.

INDARKERIA MATXISTARIK
GABEKO XANISTEBANAK

ARRETA eta INFORMAZIO ZERBITZUA ERASO MATXISTEN AURREAN

Abuztuak 1 eta 2 (asteburua)

19:00-21:00 / 23:00-07:00


Abuztuak 3, 4, 5 eta 6

23:00-07:00



LEKUA

Done Eztebe plazan,
Fermiñene eraikinean



XORROLA XANISTEBANETAN


Abuztuaren 2tik 7ra, Xorrola herri barruko gaueko autobus zerbitzua egongo da.

Anbulatorioko eta Yon Oñatibia kaleko geltokiak Bibliotekako parera pasatuko dira

Gaueko zerbitzu berezia: lehen zerbitzua 00:00 / azkena 06:00

(abuztuak 2an lehen zerbitzua 01:00 eta azkena 4:00).

Ibilbidea: Biblioteka, Gurutze, Ergoien Altzibar, Karrika, Iturriotz, Ibarre, Pikabene, Intxixu, Arragua, Mendin, Biblioteka.



JAI BATZORDEA



OIARTZUNGO
UDALA

Azala: Xanistebanak 2026 iragartzen dituen kartela. Egilea: Igor San Jose Izagirre.